


## KANALAK

Testu honetan gure produktua saltzeko erabiliko ditugun kanalak adieraziko ditugu, hau da, gure harremanak adieraziko ditugu. Publizitaterako kanalak, bezeroekin komunikatzeko kanalak, banaketa kanalak eta salmentarako erabiliko ditugun kanalak zehazki.

Salmentarako beste enpresa askok egiten duten bezela egingo dugu, internet bidez egingo dugu, gure webgunetik. Ez dugu nahi lokal bat eduki salmentarako, guk ez dugulako produkturik saltzen. Internetak du indar gehiena, errazagoa delako internet bidez guri iristen zaizkigun eskaerak kontrolatzea. Honela lan egitea merkeagoa da ez dugulako alokairurik ordaindu behar eta ez diogulako langileei ordaindu behar lan hori egiteagatik.

Publizitate kanaletaz gu arduratuko gara, lehenengo Goierri eskualdeetako udaletxetara joango gara gure ideia azaltzeko. Horren ondoren sare sozialetan publizitatuko dugu gure produktua, Instagramen enpresaren kontua irekiko dugu bertan behar den informazioa txertatzeko eta gurekin kontaktuan jartzeko hainbat modu ere aurkeztuko ditugu, berdina egingo dugu Twitter Tik Tok plataformetan. Hasieran sare sozialak gehiago erabiliko ditugu, batez ere Goierriko eskualdean bizi direnentzako. Gure ideia kaletan egongo da, jende gehiena konturatu dadin. Gainera, ez dute jakingo nola erabil ditzakete gure patineteak. Beraz pentsatu dugu gure patineteak instalatu baina lehen publizitatea egin beharko dugula, posterren bat jarritz, sare sozialak ez dituztenak konturatzeko.



Azkenik, bezero bakoitza patinetea erabili ondoren egin duen bidaia ebaluatu dezake, eta horrela guk informazio jasoko dugu, eta jakingo dugu ea gure bezeroak pozik dauden gure produktuarekin edo zerbait gehitu ala hobetu dezakegun. Edozein kexa izaten badute gurekin harremanetan jar daitezke sare sozialetatik edo webgunetik. Esan bezala ibilbidea bukatutako nota jarri diezaioke eta zer hobetu daiteken jarri dezakete.